Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko abuztuaren 16a, asteazkena — 155 — Miércoles, a 16 de agosto de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

2017ko uztailaren 27ko Alkatetza Dekretu bidez, honakoa erabaki da:

*Lehena.* Loiola Berrikuntza Fundazioari 64.415,42 €ko diru-laguntza ematea, eta laguntza hori arautuko duen lankidetza hitzarmena onartzea, ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

«*Lehena. Diru-laguntzaren xedea zehaztea.*

a) Diru-laguntzaren xedea eta helburua.

Diru-laguntzaren xedea da Urola Erdia eskualdean garapen sozioekonomikoa eta enpleguaren sorrera bultzatzea; eskualdean enpresa-sare iraunkorra sortzea, oinarri teknologiko sendoarekin eta merkatuan irmo kokatua, enplegua sortu ahal izateko eta etorkizunean garapen iraunkorrerako oinarriak finkatzeko.

— Helburu hori betetzeko, «2017ko Memoria txostena» deritzan dokumentuan zehazturiko jarduerak finantzatzeko bideratuko da diru-laguntza. Onuradunak (Loiola Berrikuntza Fundazioak) gauzatu beharko ditu jarduera hauek.

b) Lehentasunez jarduteko esparruak:

— Enpresa lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzea: diru-laguntzen bitartekaritza, enpresen kapazitazioa, enpresen lehiakortasuna sustatzeko partaidetza ereduak bideratzea, enpresa handi eta txikien arteko elkarlana bideratzea, eskualde gisa RIS3 estrategiarekin bat egiten duten proiektuak bultzatzea.

— Ekintzailetasuna sustatzea: ekintzailetza sustatzeko programa eta zerbitzuak bideratzea, ekintzaileei zuzendaritzako zerbitzuen azterketa eta hobetzea, aholkularitza zerbitzuak, laguntza publikoak bideratu.

— Prestakuntza eskaintza eskualdearen garapen beharretara egokitzea: Elkarrekin Eraikitzen Proiektuaren kontsolidazioa, ikastetxeen arteko elkarlana sustatzea, ikasleei orientazioa eskaintzea.

— Eskualdean ingurune berritzaileen sorrera bultzatuko duten politika eta estrategiak ezartzea: eskualdeko bisio amankomuna sustatzea, eragile ezberdinen arteko topagunea antolatuz, dibertsifikazio sektoriala bultzatzea (Industria Mapa, barne ekintzailetasun programak, bailarako proiektu estrategikoak), Enplegu plana exekutatzea, etab.

d) Hartzaileak.

Hitzarmen honetan jasotakoa betez gauzatuko diren jarduerak eta ekimenak, Loiola Berrikuntza Fundazioak egindako memorian jasotzen direlarik, hitzarmenean bertan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten ekintzaileei, enpresei, entitateei eta erakundeei bideraturik daude, berdin publikoei nahiz pribatuei.

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Mediante Decreto de Alcaldía de 27 de julio de 2017 se ha acordado lo siguiente:

*Primero.* Conceder a la Fundación Loiola Berrikuntza una subvención de 64.415,42 € y aprobar el convenio de colaboración que ha de regir dicha ayuda, según las cláusulas siguientes:

CLÁUSULAS

«*Primera. Establecimiento del objeto de la subvención.*

a) Objeto y finalidad de la subvención.

El objeto de esta subvención es impulsar en la comarca de Urola Medio el desarrollo socioeconómico y la creación de empleo; instituir una red permanente de empresas con una potente base tecnológica que se establezcan firmemente en el mercado, para crear empleo así como para establecer las bases de un futuro desarrollo sostenible.

— Para lograr dicho objetivo, la subvención se destinará a la financiación de las actuaciones establecidas en el documento denominado «Informe Memoria de 2017». Dichas actuaciones deberán ser ejecutadas por el beneficiario (Fundación Loiola Berrikuntza).

b) Ámbitos de actuación prioritarios:

— Impulso a la competitividad y la innovación empresarial: mediación de subvenciones, capacitación de empresas, elaboración de modelos de participación para el impulso de la competitividad empresarial, organización del trabajo en común entre empresas grandes y pequeñas, impulso de proyectos que se ajustan a la estrategia RIS3 como comarca,

— Fomento del emprendimiento: establecimiento de un programa y servicios para fomentar el emprendimiento, estudio y mejora de los servicios de dirección para emprendedores, servicios de asesoramiento, disposición de ayudas públicas,

— Adecuación de la oferta de formación a las necesidades de desarrollo de la comarca: consolidación del proyecto Elkarrekin Eraikitzen, fomento de la cooperación entre los centros docentes, oferta de orientación al alumnado,

— Establecimiento de políticas y estrategias que impulsen la creación de entornos innovadores en la comarca: fomento de una visión común de la comarca constituyendo un punto de encuentro para todos los agentes, impulso de la diversificación sectorial (Mapa de Industria, programas de emprendimiento interno, proyectos estratégicos de la comarca), ejecución del Plan de Empleo, etc.,

d) Destinatarios.

Las actuaciones e iniciativas que se desarrollen en cumplimiento de lo establecido en este convenio, y que deberán recogerse en la memoria redactada por la Fundación Loiola Berrikuntza, están destinadas a aquellos emprendedores, empresas, entidades e instituciones, tanto públicas como privadas, que cumplan las condiciones recogidas en dicho convenio.

EK\CV GAO-I-2017-05654

e) Aurrekontua.

Berrikuntza sozioenpresarialerako Plan hau gauzatzeko 2017rako Loiola Berrikuntza Fundazioak aurkeztu duen aurrekontua, guztira, 244.532,05 €koa izan da.

*Bigarrena. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.*

Egitekoak diren jarduerak betetzeko prozesuan zuzenean sortutako gastuak hartuko dira gastu hautagarritzat, betiere 2017ko Kudeaketa Plangintzan eta aurkezturiko aurrekontuan sartuta baldin badaude.

*Hirugarrena. Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua.*

Diru-laguntzaren zenbatekoa 64.415,42 €koa izango da 2017ko aurrekontu-ekitaldirako, eta Sustapenerako diru-laguntzei dagokien 8000.432.241.00.04.2017 aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da.

*Laugarrena. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.*

Diru-laguntza hau bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek helburu bererako emandako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez badute. Klausula honek ez dio kalterik egingo diru-laguntza edo laguntza horiek arautzeko legedian xedatutakoari.

Era honetan, Loiola Berrikuntza Fundazioak konpromisoa hartzen du jasotako beste diru-laguntzen berri emateko Azkoitiko udalari, Herri-Administrazioetako diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu guztietan, eta aipatu Legearen 19.3. artikuluan xedaturikoa kontuan harturik, jasotako diru-laguntza guztien kopuruak ezingo du gainditu gastuen aurrekontua. Gainfinantzaketaren kasua gertatuko balitz, Fundazioak itzuli beharko dio Azkoitiko udalari soberan jasotako diru-laguntza, Lege honen 37.3 artikuluan araututakoa jarraituz.

*Bosgarrena. Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak.*

Lehen klausulan adierazitako jarduerak 2017ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko dira.

Diru-laguntzen Legedian xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontuan hartuta diru-laguntzen funtsak ematea ezinbestekoa dela diru-laguntzari atxikitako jarduerak gauzatu ahal izateko, egokitzat jo da ordainketa aurreratuak egitea, gastuak justifikatu aurretik, alegia.

Horrenbestez, programa honen arabera egingo dira diru-laguntzaren ordainketak:

1. % 80a lankidetza-hitzarmen hau sinatu ondoren.

2. % 20a Memoria Jarduera-Kudeaketa Plangintzan azaldutako jarduerak amaitu ondoren beti ere 2017ko abenduak 31 baina lehenago.

Banku-transferentzia bidez ordainduko da diru-laguntza, Loiola Berrikuntza Fundazioko kontu korrontean.

*Seigarrena. Justifikazio-kontuan jaso beharreko agiriak.*

Diru-laguntzaren xedea justifikatzeko, eta diru-laguntza amaitzean jasotako funtsak zertara bideratu diren egiaztatzeko, diruz lagundutako jarduera osoari dagozkion gastu eta sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuko duen jarduera-memoria. Egindako jarduerak eta eskuratutako emaitzak adierazi beharko dira memoria horretan.

e) Presupuesto.

El presupuesto total presentado para 2017 por la Fundación Loiola Berrikuntza, dirigido a la materialización de este Plan de Innovación Socioempresarial, asciende a 244.532,05 €.

*Segunda. Gastos subvencionables.*

Se considerarán gastos elegibles aquellos gastos derivados directamente del proceso de ejecución de las actuaciones a desarrollar, siempre que estén incluidos en la Planificación de Gestión de 2017 y en el presupuesto presentado.

*Tercera. Cuantía y crédito presupuestario.*

La cuantía de la subvención asciende a 64.415,42 € para el ejercicio presupuestario de 2017, con financiación a cargo de la partida presupuestaria 8000.432.241.00.04.2017 correspondiente a las subvenciones de fomento.

*Cuarta. Compatibilidad con otras subvenciones.*

Esta subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos procedentes de cualquier otra administración o entidad pública o privada destinados a la misma finalidad, siempre que no superen el coste de la actividad subvencionada. Esta cláusula se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

Así pues, la Fundación Loiola Berrikuntza se compromete a informar al Ayuntamiento de Azkoitia de otras subvenciones que reciba, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 19 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, reguladora de las subvenciones de las Administraciones Públicas.

En todo caso, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 19.3 de la ley mencionada, el importe de todas las subvenciones concedidas en ningún caso podrá superar el coste de la actividad subvencionada. En el caso de que se produjera una sobrefinanciación, la Fundación deberá reintegrar al Ayuntamiento de Azkoitia el exceso obtenido, según lo establecido en el artículo 37.3 de esta Ley.

*Quinta. Plazos y modos de pago de la subvención.*

Las actividades descritas en la cláusula primera deberán ejecutarse con anterioridad al 31 de diciembre de 2017.

De conformidad con la normativa de subvenciones, y teniendo en cuenta que la entrega de los fondos de la subvención es condición necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, se considera oportuno realizar pagos anticipados con carácter previo a la justificación.

Por lo tanto, los pagos de la subvención se realizarán en base al siguiente programa de pagos:

1. El 80 % tras la firma del presente convenio de colaboración.

2. El 20 % una vez finalizadas las actuaciones recogidas en la Memoria de Actividades-Planificación de Gestión, y siempre con anterioridad al 31 de diciembre de 2017.

La subvención concedida será abonada mediante transferencia bancaria a la cuenta de la Fundación Loiola Berrikuntza.

*Sexta. Documentos que debe contener la cuenta justificativa.*

Para justificar el objeto de la subvención, así como para verificar el destino dado a los fondos percibidos, el beneficiario deberá presentar las cuentas del total de gastos e ingresos correspondientes a la totalidad de la actividad subvencionada.

a) Memoria de actividad justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención. En la misma se incluirán las actividades realizadas y los resultados obtenidos.

EK\CV GAO-I-2017-05654

b) Diruz lagundutako jarduerari dagozkion gastuen zerrenda, atalka sailkatuta. Hartzekoduna nor den eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrela badagokio, ordainketa-data zehaztu beharko dira zerrenda horretan.

c) Diruz lagundutako jarduerarekin loturiko sarreren zerrenda.

d) Administrazioaren aurrean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

*Zazpigarrena. Onuradunak bere gain hartutako baldintza eta betebehar orokorrak.*

a) Giza baliabideak eta baliabide teknikoak.

Loiola Berrikuntza Fundazioak beharrezkoa den giza lantaldea jarriko du akordio honen zerbitzura, baita hitzarmenak ekarriko dituen proiektuak garatzeko kualitatiboki nahiz kuantitatiboki ahalmen nahikoa izango duten baliabide teknikoak eta azpiegitura ere. Hitzarmenaren eranskinean izendatutakoak dira baliabide horiek.

Egokia dela uste badute, Azkoitiko Udalak nahiz eskualdeko eragile ekonomikoek ere beren langileak jarri ahal izango dituzte proiektuen zerbitzura, egoki irizten dioten faseetan.

Hitzarmen honetan zehaztu diren ekintzak exekutatzeko, Loiola Berrikuntza Fundazioak, Azkoitiko udalak eskura ezarritako instalazioak erabili ahal izango ditu.

b) Osagarritasuna eskualde mailako jardunekin.

Bi aldeek eskualdearen ikuspegia aintzat hartuta koordinatu eta uztartuko dituzte beren ahaleginak, eta, horrenbestez, adierazitako jarduerak bateragarriak izango dira beste esparru batzuetan egindakoekin.

Oinarrizko hitzarmen honek ekar ditzakeen lankidetza eta elkarlaneko ekimenetan, hitzarmen hau ez ezik Urola Erdia eskualdean egiten diren jarduerak izango dira erreferentzia.

2017ko Kudeaketa Plana gauzatzeko, urteko plangintzak bete beharko dira eta bigarren klausulan adierazitako lehentasunezko jarduera-esparruetatik sortutako proiektuak gauzatzeko baldintzak hartuko dira kontuan. Dokumentu honi laguntzen dion eranskinean zehazten dira, xehetasun osoz, zein diren lehentasunezko esparru horiek, eta bat etorriko dira unean-unean Loiola Berrikuntza Fundazioan indarrean dauden ohikoekin eta kasu bakoitzean adostu daitezkeen esparru espezifikoekin (horrela balitz, dagokion proposamenean bilduko dira lehentasunezko esparru horiek).

*Zortzigarrena. Hitzarmenaren garapenaren jarraipena.*

Jarraipen Batzorde bat eratuko da hitzarmen hau martxan jartzeko, kontrolatzeko eta bertan aurreikusitako jardueren jarraipena egiteko. Alde bakoitzeko bi pertsonak osatuko dute batzorde hori, eta alde bakoitzak egoki irizten dituen laguntzaileek. Batzordeak hilero bildu beharko du, eta eginkizun hauek izango ditu bere ardurapean:

a) Proiektuak planifikatzea eta horien jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita hitzarmen honetako ekintzei aplikatu beharreko ekarpen ekonomikoak kontrolatzea ere.

b) Proiektuak garatzeko arduradun egokiak izendatzea, non honakoak diren:

c) Azkoitiko Udalaren aldetik: Alkate-Udalburua eta sustapen ekonomikoaren arloko zinegotzia.

d) Loiola Berrikuntza Fundaziotik: Zuzendaria.

e) Erakunde sinatzaileen gobernu-organoetara eramatea eskuratu diren emaitzen hiruhileko ebaluazioak, proposame-

b) Relación detallada por capítulos de los gastos asociados a la actividad subvencionada, que deberá incluir identificación del receptor con su documentación correspondiente, importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de abono.

c) Relación detallada de otros ingresos asociados a la actividad subvencionada.

d) Acreditación de hallarse al corriente con la Administración en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

*Séptima. Condiciones y obligaciones generales asumidas por el beneficiario.*

a) Medios humanos y técnicos.

La Fundación Loiola Berrikuntza pondrá a disposición de este acuerdo el equipo humano necesario así como medios técnicos e infraestructura con capacidad suficiente, tanto cualitativa como cuantitativamente, para desarrollar los proyectos que se deriven del convenio. Estos medios serán los mencionados en el anexo al presente convenio.

Si se considera oportuno, tanto el Ayuntamiento de Azkoitia como los agentes económicos comarcales podrán asimismo aportar personal propio al servicio de los proyectos, en las fases que se consideren oportunas.

Para la ejecución de las actuaciones descritas en el presente convenio, la Fundación Loiola Berrikuntza podrá hacer uso de las instalaciones puestas a disposición por el Ayuntamiento de Azkoitia.

b) Complementariedad con las actuaciones comarcales.

Ambas partes coordinarán y unirán sus esfuerzos desde una perspectiva comarcal, de manera que las actuaciones indicadas sean compatibles con las desarrolladas en otros ámbitos.

Las iniciativas de colaboración y cooperación derivadas del presente convenio marco tendrán como referencia, además del presente convenio, las actuaciones que se desarrollen en la Comarca de Urola Medio.

Para la realización del Plan de Gestión 2017 se deberán cumplir las planificaciones anuales, y se tendrán en cuenta los requisitos de ejecución de los proyectos derivados de las áreas de actuación prioritarias recogidas en la cláusula segunda. En el anexo que acompaña a este documento se especifican con todo detalle dichas áreas de actuación prioritarias, las cuales deberán coincidir con las habituales que estén en vigor en la Fundación Loiola Berrikuntza en cada momento, así como con las áreas específicas que se acuerden en cada caso (que quedarán recogidos en la propuesta correspondiente).

*Octava. Seguimiento del desarrollo del Convenio.*

Se constituirá una Comisión de Seguimiento para la puesta en marcha del presente convenio, así como para su control y para el seguimiento de las actuaciones previstas en el mismo. Estará compuesta por dos personas de cada una de las partes y por los colaboradores que cada parte considere oportunos, que deberán reunirse mensualmente y asumir las siguientes funciones:

a) Planificación, seguimiento y evaluación de los proyectos, así como control de las aportaciones económicas que se apliquen a las acciones del presente convenio.

b) Nombramiento de los responsables oportunos para el desarrollo de los proyectos, y en concreto:

c) Por el Ayuntamiento de Azkoitia: el alcalde-presidente y el/la concejal/a del área de fomento económico.

d) Por la Fundación Loiola Berrikuntza: el director/la directora.

e) Presentación ante los órganos de gobierno de las instituciones que suscriben las evaluaciones trimestrales corres-

nak, txostenak, akordioak edo organo horien onarpena eskatzen duten gainerako erabaki guztiak.

f) Jarritako helburuak lortzeko xedea izan dezakeen beste edozein.

*Bederatzigarrena. Aplikatu beharreko lege-araubidea.*

Diru-laguntza hauek emateko eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa arautzeko, honako lege eta dokumentu hauek hartuko dira oinarri: lankidetza-hitzarmen hau eta diru-laguntzak emateko unean indarrean diren gainerako araudiak.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztietarako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko 887/2006 Errege dekretuz onartutako Araudia aplikatuko dira.

*Hamargarrena. Desadostasunak.*

Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak eta desadostasunak, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren mende geratuko dira.»

— *Bigarrena:* Aipatu proiektuen garapena finantzatzeko 64.415,42 €ko gastua onartzea, ondoko aurrekontu partidaren kargura: 8000.432.241.00.04.2017.

— *Hirugarrena:* Azkoitiko Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena izenpe dezala Udalaren ordezkaritzan.

— *Laugarrena:* Lankidetza hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin bat, eta Udaletxeko Iragarki taulan argitaratzea.

— *Bosgarrena:* Erabaki hauek Loiola Berrikuntza Fundazioari eta Udaleko Kontu-hartzailetza Sailari jakinaraztea.

pondientes a los resultados obtenidos, así como de propuestas, informes, acuerdos y cuantas determinaciones requieran la aprobación de los mismos.

f) Cualesquiera otras que tengan por objeto alcanzar los objetivos fijados.

*Novena. Régimen jurídico aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el beneficiario y la entidad otorgante se regirán por las siguientes leyes y documentos: el presente convenio de colaboración y demás normativas en vigor en materia de concesión de subvenciones.

Para todo lo no previsto en las presentes bases, serán de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado*, 18-11-2003) y su Reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006.

*Décima. Desavenencias.*

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, que posee naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.»

— *Segundo:* Aprobar el gasto de 64.415,42 € para la financiación de los proyectos mencionados, con cargo a la partida presupuestaria 8000.432.241.00.04.2017.

— *Tercero:* Facultar al alcalde-presidente de Azkoitia para la firma del convenio en representación del Ayuntamiento.

— *Cuarto:* Publicar el texto del Convenio de Colaboración en el Boletin Oficial de Gipuzkoa y en el portal de transparencia del Ayuntamiento, de conformidad con lo dispuesto en el apartado b) del artículo 8.1 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

— *Quinto:* Comunicar las decisiones adoptadas a Loiola Berrikuntza Fundazioa y al Departamento de Intervención del ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2017-05654